

1983-III-29

ESKUALDUNAREN mendeurrena - batzar irekia

Baionako Euskal Erakustokian, 1987.eko martxoaren 29an, ospatu da *Eskualduna* aldizkariaren mendeurrenkari, Euskaltzaindiaren batzar irekia. Bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruorde, J. M.^a Satrustegi idazkaria, P. Charritton, J. L. Davant, J. Hiriart-Urruty, E. Larre, F. Ondarra eta J. San Martin, euskaltzainak; J. A. Arana, P. Arregi, R. Badiola, R. Canblong, J. B. Dirassar, J. Intxausti, J. M.^a Iriondo, M. Itçaina, M.^a P. Lasarte, J. L. Lizundia, B. Oyhartzabal, J. M.^a Torrealdai, M. Ugalde, X. Videgain eta J. J. Zearreta.

Lehendabizi, L. Villasante Euskaltzainburuak, agurrezko hitz batzu esan ditu. Euskaltzaindiak, Euskal Herrian zehar, honelako bilkurak egiten dituela azpimarratuz. Aurreko bi egunetan, Angelu, ondoko herrian, bere *V. Barne Jardunaldiak* egin dituela adieraziz.

Ondoren, P. Charritton euskaltzaina, “*Eskualdunaren historia*” izeneko gaiaz mintzatu da. Aldizkariaren eboluzioaz, izan zituen zuzendariez eta inguruko gertakizunez, aipamen ugari eta zehatz eman ditu.

Jarraian, M. Ugalde euskaltzain urgazleak, “Kazetari euskaldun baten esperientziak” izeneko txostena irakurri du. Euskal kazetaritza, bere kontestuan jarri-rik, lan interesgarria suertatu da.

Laugarrenik, L. A. Aranberri “Amatiño” jauna mintzatu da. Bere txostena “Euskal prentsa idatzia, ehun urtetan loratu ez den lanbidea” izenekoa, egungo kazetariaren egoera *Eskualduna* aldizkaria sortu zenetik harrezkero izan diren gora-beherak kontutan izanik, erraz ulertzeko moduan utzi ditu.

Segidan, J. M.^a Iriondo euskaltzain urgazleak, “Irrati-telebistaren lekukotasuna” izeneko bere txostena irakurri du. Audiobisual komunikabideak, euskal prentsan orohar, izan duen eragina argitu du.

Azkenik, P. Charritton euskaltzainak, IKER 4 *Resurrección M.^a de Azkue eta Pierre Broussain-en arteko elkarridazketa* izeneko liburua kaleratu dela aditzera eman du. Argitalpen hau berak paratu du eta egun batzu barru, Bizkaiko Diputazioan aurkeztuko dela iragarri du, Foru Erakunde honek babestu bait du.

Eta besterik gabe amaitu da *Eskualduna* aldizkariaren goratarrea.